



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-06-13

VILURTEA 1.727 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzo goizean izan ziren obrak ikusten proiektuaren jarraipena egiteko osatu zen lan taldeko kideak. E. EZBEIZA

URTEBETE ADINEKOEN ZENTROA IREKITZEKO

TOLOSA Alhondiga plazan kokatuta dagoen sorospen gune berriak 177 plaza izango ditu; 23,3 milioi euroko aurrekontua du proiektuak 3

Bihar ospatuko duten Gipuzkoako Eskola Txikien Festarako guztia prest

BERROBI Azken hilabeteak prestaketetan egon dira; Altzori pasako diote lekukoa 6



Ikasleak eta irakasleak azken entseguak egiten. HITZA

Euskal Herriko Mendi Bizikleta Txapelketa bihar, San Blasén

TOLOSA Mendikute elkarteak antolatuta, 10:30ean hasiko da 6,5 kilometroko proba 5

ANJEL ARROSPIDE AIZKOLARIA

«Etorkizun polita ikusten diot aizkorari; laster etorriko dira berriak»

LEABURU Urrezko Aizkolarien Txapelketan bigarren izan da Nazabalen aurka galdu ostean 7

RUBEN SARALEGI AIZKOLARIA

«Inguruko laguntzarik ez baduzu ez duzu deus egiterik aizkoran»

LEITZA Urrezko Aizkolarien Txapelketan, 19 urtez azpiko mailan, bigarren geratu da 7





HITZAK bizikletaz egiteko ibilbideak proposatuko ditu artikulu sorta batean; astero ibilbidea, bere xehetasunak, distantziak-alturak grafiko batean, mapa eta inguruko informazioa azalduko da.

Eskualdea ezagutu bizikletaz

JOXEMI SAIZAR

Bizikletak udarako direla dio filme historiko baten izenburuak. Eta uda bada-torrela aprobetxatuz, ganbaratik bizikleta atera, txukundu eta Tolosaldea eta Leitzaldea ezagutzera animatu nahi ditugu irakurleak. Horretarako astero-astero ibilal-ditxo bat proposatuko dizuegu HITZATik.

Txango motzak eta leunak izango dira, edozeinek egiteko modukoak. Baita familian haur txikiak ere. Horretarako pazientzia hartu eta kontuz ibili beharko dute gurasoek. Hogeikilometro inguruko irteerak izango dira, ordu pare batean lasai egiteko modukoak, edo la-

saia go hartuta goiz edo arratsalde pasa bezala planteatuz.

Ibilaldi leunak izango direla esan dugu, baina gure eskualdeetako orografia hor dago eta bere mugak jartzen ditu: herri gehienak alturan daude, beraz aldapa batzuk ere egokituko dira kasu batzuetan. Baina ez da Tourmaletako igo beharko, lasai. Kontuan izan herriarik altuenak 400-500 metro inguru dituztela: Bidegoianek 489 metro, Orexak 415 metro eta Berastegik 406 metro.

Asteroko artikuluan ibilbidea eta bere xehetasunak, distantziak eta alturak grafiko batean, mapa eta inguruko informazioa azalduko da.




Bizikletaz edozeinek egiteko moduko txangoak proposatuko ditu HITZAK astero. JOXEMI SAIZAR

Tolosa-Anoeta-Villabona-Aduna-Amasa-Irura-Tolosa (21 kilometro)

J. SAIZAR

Lehen ibilaldia nahiko laua da eta trafiko gutxi errepideetatik, Aduna (128 m) eta Amasako (120 m) tontorrek bakarrik ditu. Tolosatik abiatuta lau herri eta auzo garrantzitsu bat ezagutzeko aukera emango digu.


Tolosako erdialdetik aterata (Triangulo hartuko dugu erreferentzia gisa), Alde Zaharra zeharkatu eta Belate auzotik barrena abiatzen gara Anoeta aldera (GI-3650 errepidea). Gaur ez da Abraham Olanoren eta Anjel Mari Peñagarrikanoren herria lasai ezagutzeko egunik egokiena agian, Korpus jaietan murgilduta egongo direlako. Edo agian bai.



Errepide nagusia utzi eta Oria ibaia eta trenbidearen artean dihoran bidexka asfaltatua hartuko dugu, ia autoen trafikorik ez duena. Hori hartzeko bi aukera daude: Errotalde auzotik edo, herrian

sartuta, Alkizarako bidea hartu eta aldapa jaitsi bezain pronto eskuinetara hartuta. Irurara joateko oinezko zubi berria topatuko dugu laster. Trenbidea pasatzerakoan kontuz ibiliko gara eta barrera jaitzita baldin bada, itxaron. Oso bide laua da, bizikletaz gozatzeko modukoak. Muino bakarra Sarobe baserriera joateko zubiaren parean dauka. Villabona parera iritsitakoan biribilune bat dago, herrian sartzeko zubiaren parean. Eskualdeko bigarren herriarik handienak bisita lasaia gero merezi du eta beste baterako utziko dugu.

Hor ezkerretara jarraitu, Zizurkil aldera eta bidegorri berri batek ibaiaren ezkerretatik jarraituz Zubimusuraino jarraituko dugu. Han Asteasu aldera jo eta berehala beste biribilune bat dago eta hor eskuinetara (Adunaraino eramana-



Mendizabal anaia herri kirolariaren jaioterria ezagutzeko tartea har daiteke. Jasokundeko Andra Mari (XVI. mendea), udaletxea, Torre oinetxea (XV. mendea baino lehenagokoa), frontoia, ostatu-albergea eta kiosko modernoa ikus daitezke.

Bide beretik itzuli beharrean, Andoain aldera jaitsi daiteke, eta Asvinenea kultur zentroko bidegurutzean eskuinetara hartu, industriagune aldera. Bide lasai horretan esfortzu handirik gabe era-

Adunara igotzeko dago etapako lehen igoera: kilometro bat 60 metro inguru igotzeko

Bigarren igoera etaparen amaierara helduko da: Amasara; hemen ere 60 metro kilometro batean

gingo diegu pedalei eta igoera hasi den puntura itzuliko gara. Handik lehengo bideetik Villabonara itzuli eta Jesusen Bihotz Sakratuaren elizan ezkerretara hartuko dugu, Amasara igotzeko (GI-3751). Kilometro batean 60 bat metro igo beharko dira hemen ere, azken pedalkada gogorak eta izerdiak, beraz. Tourseko San Martin eliza, frontoia eta plaza ikus daitezke bertan. Bide beretik jaitsi Villabonara eta Olaederra kiroldegia ondo zubitik Oria ibaia zeharkatu eta etorri garen bideetik itzuliko gara Tolosara. Lehen txangorako, nahikoa. Ez dago gaizki!

gogaituen GI-3610 errepidea), Bulardegi aldera hartu, industria gune aldera.

Geldialdia aukeran, Adunan

Zizurkilgo igoera ezkerretara utzita, segi eta berehala Adunara igotzeko seinalea agertuko da. Hor dago etapa honetako lehen igoera, kilometro inguru 60 bat metro igotzeko. Bide erdian Santa Kruz ermita ikusiko dugu. Eguneko lehen izerdiak bota ondoren, atsedena hartzeko eta Juan Kruz Igerabide idazlea, Paco Ibañez kantaria, Iñaki Gorostidi harri-jasotzailea eta

LIBURUA SALGAI

Salmenta:
Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako bazkideak: 14 €



'Kirolari atek zabalik' izeneko ekimena ospatuko da bihar goizean

Kirolak » Gaur goizetik aurrera zabalik izango da Usabal kiroldegiko kanpoko igerileku handia.

ERREDAKZIOA

Igandean **Kirolari atek zabalik** ekimena ospatuko da Usabal kiroldegian. Goizean zehar hainbat ekitaldi izango dira etzi. Hasteko, 09:00etatik 14:00etara egongo da zabalik kiroldegia, eta bertan, 10:00etatik aurrera, rokodromoan Oargi mendi elkarteko eskalatzailak egongo dira, nahi duen oro eskalatzaren aritu dadin.

Ordu bat beranduago, 11:00etan hain zuzen, zezen-plazan zaldi gainean ibiltzeko aukera izango da, dohainik. Azkenik, garai berean, Beotibar pilotalekuan elkartu eta, Txus Caballero gidari dela, bigororritik paseatuko dira batzuk.

Bestalde, gaurtik aurrera Usabal kiroldegiko kanpoko igerileku zabalik izango da.

Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdi: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Refre: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldea bus: 943 650621

Leitzarar autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Irramugeri egoitza: 943 670325

Tolosa genda: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Adinekoentzako sorospen gune berria 2010eko ekainerako prest izango da



Atzo goizean agerraldia egin zuten proiektuaren jarraipena egiteko osatu zen lan taldeko kideek; lanak nola doazen azaldu zuten bertan. E. EZEIZA

Hirigintza » Alhondiga plazan kokatuta dagoen zentroa urtebetean amaitzea aurreikusten da; 177 plaza izango ditu.

ESTI EZEIZA

Alhondiga plazan eraikitzen ari diren adinekoentzako sorospen gune berria 2010eko udarako prest izango da. Atzo goizean, proiektua garatzeko sortu zen mahaiak deituta, eraikinarekin lanak nola doazen ikusteko agerraldia egin zuten Tolosako Udala osatzen duten alderdietako ordezkariak, lanez arduratzen den Arkaiteza enpresakoek eta teknikariek.

Gerontologiko berri bezala izendatzen bada ere, hortik harago doan zentro bat izango dela azpimarratu zuen atzo Tolosako alkateak. Bieraikinekin osatuko dute sorospen gune berria. Aldebatetik, gerontologiko zentroa egongo da, eta bestetik, balioaitzeko egoitza. Lehendabizikoak 177 plaza izango ditu, mendekotasun egoeran dauden adineko, gaixo mental eta eguneko zentrorako. Bestetik, balioaitzeko egoitzan, 21 apartamentu egongo dira, pertsona autonomo edo mendekotasun urria daukateinei zuzenduta.

Zentro modernoia izango da Alhondigakoa eta XXI. mendean behar diren tresna guztiak izango ditu. Bestalde, alkateak nahiz proiektuaz arduratu den arkitektoak, Jose Mari Aseginolazak eraikinarekin kokaleku ona nabarmendu zuten. Bildarrazteak azaldu bezala, Tolosako eraikin publiko esanguratsuenen ondoan, eta hi-

» ZENBAIT DATU

■ **Zentroak guztira dituen plazak.** 177.

■ **Mendekotasun egoeran dauden adineko egoiliarrentzako plazak.** 77.

■ **Psikogeriatrako unitateko pertsonentzako plazak.** 16.

■ **Gaixo psikosozialentzako plazak.** 24.

■ **Eguneko zentrorako plazak.** 60.

■ **Balioaitzeko etxebizitzak.** 40 laguntzako plazak daude, eta 21 apartamentu.

■ **Inaugurazio data.** 2010eko ekaina.

■ **Aurrekontua.** 23,3 milioi euro.

riaren erdigunean aurkituko da zentroa. Bere alboan geratzen baitira, Beotibar pilotalekua, Gipuzkoako Artxibo Orokorra, Epaitegia eta San Frantzisko eliza. Hauen artean, erdigunean, plaza bat egongo da. Alhondiga hain zuzen ere, eta Tolosako handienetako bat izango da.

2007aren amaieran hasi ziren lanak eta 2010eko lehenengo sehi-lekoan amaituko dira. Inaugurazioa datorren urteko ekainean izan daiteke aurreikusten dute. Zentroaren eraikuntzaren aurrekontua 23,3 milioi eurokoa da.

Elkarlanean egindako proiektua

Zentro berriaren proiektua garatzeko, Udalean ordezkariak politikoa duten alderdi politiko guztiek, proiektuarekin zerikusia daukaten teknikari eta zentroa egin eta kudeatzeaz arduratuko den anpresak lan talde bat osatu dute. Hauek arduratu diran lanen jarrai-



Bi eraikinek osatuko dute zentroa; horietako bat gerontologikoa izango da. E. E.

pena egin, hartu beharreko neurriak adostu eta irtenbide nahiz aukera ezberdinak proposatzeaz. Jokin Bildarrazteak atzoko agerraldian azpimarratu zuen puntu eta bat hau izan zen, bere hitzetan, «herriaren parte-hartzea oso garrantzitsua izan da, eta mundu hotzetan interesa duten taldeekin biltzen ari gara zentro osoago bat eraikitzeko». Hala, azaldu zutele, lan taldea Tolosako elkarte eta auzokoekin bildu da behin baino gehiagotan. Bilera hauetan azken hauen eskabideak entzun eta zailantzak argitu dira. Bestalde, lan taldeak elkarte eta auzokoen informazioa eskuratzen eta biltzen ari da, hauen eskabideei «irtenbide egokienak» emateko.

Sorospen gunearen ezaugarriak

Zentro berria bi eraikinek osatuko dute: gerontologikoa eta balioaitzeko etxebizitzak biltzen dituen. Eraikin biak behoko eta lehen so-

lariuetan egongo dira elkartuta, non sukalde eta garbitegia bezalako partekatutako zerbitzuak izango diren.

Gerontologiko zentrorako 177 plaza izango dira, mendekotasun egoeran dauden egoiliarrentzako izango dira, 16 psikogeriatrako plaza adinekoentzako, 24 egoiliar psikosozialentzako eta 60 eguneko zentrorako. Egoiliar guztiek izango dute banakako gela eta bertatik sarrera izango duen bainugela. Ezkondu, bikote edo etxekoek logela partekatuko aukera izango dute. Horrez gain, terrazak, jantokiak, erabilera anitzeko aretoak, ile-apaiegia edo podologia zerbitzua bezalako guneak ere izango ditu.

Balioaitzeko etxebizitzak pertsona autonomo edo mendekotasun urria dutenentzako izango dira, besteak beste, tratu txarrak jasaten dituztenentzat edo baztertzat izateko arriskuan daudenentzat. Horrez gain, 200 metro karratuko kafetegia izango du.



Etorkizuneko kirola aztergai

KIROLA • Oreaki fundazioak, Tolosako Udalak eta Asuncion klinikak antolatuta, Kirolean Integrazio Zientifiko-Humanistari buruzko lehenengo jardunaldia izan zen herenegun Tolosako Kultur Etxean. Hiru erakun-

deetako ordezkariak eta gaiaren inguruko adituek hartu zuten parte ekimen honetan. Kirola etorkizuneko nolakoa izango den edota nolakoa izan beharko luke aztertu zuten, besteak beste. **IT.**



Orixeko neskek txapeldunak

KIROLA • Orixeko Institutuko areto futboleko neskek dira Euskadiko txapeldun berriak. Joan den larunbatean, Gasteizen, Bizkaia-aren aurka 0-0eko emaitzarekin bukatu zuten partida, eta aurreko astean Nafarroaren aurka 3-2 irabazi zuten, Euskadiko Txapelketa eskuratu zuten. Urko izan da taldeko entrenatzailea, eta Leire, Maria, Henar, Irati, Amaia, Arantza-zu, Maddi, Lorena eta Sofia, berriz jokalaria. **HITZA**

Laburrik

Sanjoanetako egitarauak Udalaren webgunean

GIZARTEA • Udak Artxiboa sanjoanetako programak argitaratzen ari da Tolosako Udalaren webgunean. 1908tik 2000. urtera arte, 66 ale dituzte, eta ikusgai jarriko dituzte. Hala, falta diren programak dauzkaten tolosarrei deia egiten diete, Aranburura eraman ditzaizten kopia egin eta bilduma osa dezaten. 943697462 zenbakian edo artxiboa@tolosakoudala.net helbidean edin daitezke kontsultak.

Laskorain eguna ospatuko dute bihar, egun osoan

ASIA • Laskorain Ikastolaren eguna ospatuko dute bihar Usabalen. 10:30ean hasiko da bizikleta ibilaldiarekin. Jolasak, dantzak, abesbatza eta antzerkia izango dira goizean, eta bazkaldu eta gero pailazo, jolasak eta musika.

Koadrila Egunerako txartelak salgai

JAIK • Koadrila Egunerako txartelak astelehenera arte daude salgai. Orbelan, 19:00etatik 20:30era erosi ahalko dira.

Adinekoei zuzenduriko festa

ERREDAKZIOA

Iurreamendiko egoiliarrei zuzenduriko ekitaldiak hasiko dituzte datorren astelehenetik igandera, ohiko moduan, Adinekoen Astearen baitan.

Askotariko ekitaldiez gozatzeko aukera izango dute astelehenean txupinazoa botatzearekin batera. Ekitaldien artean musika izango da protagonista, hainbat abesbatza izango baitira, baina horretaz gain, jokuak izango dituzte, hitzaldiak, eta baita bazkariak ere Iurreamendiko egoiliarrek.

» EGITARAUA

Ekainak 15, astelehena

- 10:30. Meza
- 11:00. Globoekin txupinazoa.
- 11:30. Loteria.
- 13:00. Bazkaria zuzendaritza batzordeko kideekin.
- 17:00. Kafetegian jokuak.

Ekainak 16, asteartea

- 10:30. Meza.
- 11:00. Hitzaldia Juncal Fernandezekin.
- 17:00. Txokolatada egoiliar, familiako eta lagunentzat.



Aurten ere Alaitu abesbatza ariko da Iurreamendin. **IT.**

Ekainak 17, asteazkena

- 10:30. Meza.
- 11:00. Tonbola.
- 16:30. Iurreamendiko koroaren emanaldia kafetegian.
- 17:30. Udak Musika Eskolako ikasleen emanaldia kafetegian.

Ekainak 18, osteguna

- 10:00. Unitate psikogieratrikako egoiliarrentzat meza.
- 11:00. Ertzaintzaren Musika Bandaren emanaldia kaperan.
- 17:00. Alaitu korua kafetegian.

Ekainak 19, ostirala

- 10:30. Meza.
- 11:00. Galdera lehiaketa eta ondoren sari banaketa.
- 16:00. Bingo berezia kafetegian.

Ekainak 21, larunbata

- 18:00. Meza. 90 urte bete dituzte egoiliarrei omenaldia egingo zaie.

Ekainak 22, igandea

- 13:00. Astea amaitzeko bazkari berezia.

Opor Musikaletan izena emateko aukera dago oraindik

ERREDAKZIOA

Eduardo Mocoeroa Udak Musika Eskolak antolatuta, ekainaren 29tik uztailearen 10era Opor Musikalak izango dira. Hala, bertan izena emateko aukera badagoela oraindik ere adierazi dute arduradunak.

Gainera, Tolosako Ipar Kutxak bat egin nahi izan du ekimen honekin, eta 20 euroko diru laguntza emango du haur bakoitzeko. Informazio gehiago Gernikako Arbolan duten egoitzan lortu ahalko da.

Ikasturte berrirako matrikulak Bestalde, Musika Eskolatik azaldu dutenez, datorren astelehenean 2009-2010 ikasturte berrirako matrikulak egiten hasiko dira Musika Eskolan. Egin ahal izateko bulegoko ordutegia ondorengoa izango da: 09:30etik 13:30era astelehenean, 30era bitarte. Ekainaren 22an eta 23an itxita egongo da.



sarrerak

saridunak

- Garbiñe Otegi (Alegia)
- Garbiñe Ruiz de Eguilaz (Tolosa)
- Maritxu Bernabe (Leaburu)
- Izaskun Zarategi (Villabona)
- Maixa Zubeldia (Irura)



Alurr dantza taldearen SUA ikuskizuna

Ekainak 12 ◦ Ostirala
22:30ean
Villabonako Gurea Zinemari



Korrontzi folk taldearen musika kontzertua

Ekainak 13 ◦ Larunbata ◦ 22:30ean
Villabonako Olaederra Kirolddegian

emanaldi berezia!
Konzertuko 5 abestirekin
OINKARIK dantza egingo du!

bonoak leihatilan bertan izango dituzue

Euskal Herriko Mendi Bizikletako Txapelketa jokoan, San Blasen

Tolosa » 150 txirrindulari ingururik parte hartzea espero dute Mendikute elkarteak antolatzaileek biharko lasterketan.

ERREDAKZIOA

Mendikute Kirol eta Kultur Elkarrekin Euskal Herriko Mendi Bizikletako Txapelketa antolatu du. Bihar izango da txapelketa eta Tolosako San Blas auzotik egin beharko dute txirrindulariek ibilbidea.

10:30ean hasiko dira probak. Ibilbideak 6,5 kilometro ditu eta maila bakoitzak izulokopuru jakin bat egin behar izango du. Hala, kadeetarako hiru itzuli egin beharko di-

tuzte; junior mailakoek eta emakumezkoek lau itzuli; 23 urte azpikoek eta elite mailakoek bost itzuli eta Master 30 eta beteranok lau itzuli.

Guztira 120 eta 150 txirrindulari parte hartuko dutela espero dute antolatzaileek. Elite mailan Iban Eskisabel tolosarrak parte hartuko du. Beteranoetan Mendikute elkartearekin parte hartzen duen Ramon lekuona lezoa arra da favoritoetako bat.

Elite mailan ez da ziurra Iñaki Lejarretaren parte hartzea oraindik. Txapelketan izango balitz bera izango litzateke favorito nagusia. Lejarretak ez badu parte hartzen, Patxi Cia nafarra izango da txapela eramateko favorito nagusia.

Atari Bizi lehiaketa antolatu du aurten ere Villabonako Udalak

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak, aurten ere, naturarekiko hurbiltze ariketa bultzatu nahian, etxe eta dendetako balkoi eta aurrealdeak landarez biziberritzera gonbidatzen du Atari Bizi lehiaketa herrikoia iren bitartez, *Jarri landare bat zure bizitzan* lelopean.

Landareekiko errespetuzko jarduerak berpiztea, herriari nortasuna eman diezaiokkeen elementu komunak izanik, bere potentzialtasunak aztertzea eta billabonatarrengan harrotasun puntu bat sortaraztea eta jendearengan bere etxearen itxura eta osasunarekiko ardurua piztea dira lehiaketaren helburuak.

Udalak biztanle guztiak gonbidatzen ditu atari bizi lehiaketan parte hartzera. Lehiaketa honen helburua «biztanle guztiok gure atari eta bebarruak zein balkoiak lore, zuhaixka, igokari zein beste motatako landarez janztea da eta honen haritik ataririk interesgarri

eta originalena saritzea 2009ko Santio festetan». Atariak atontzerako orduan ez da inongo mugarik ezartzen, norberaren imajinazioarenak soilik.

Uztailen landareak beren oparodaldian egongo direnez, oso une egokia izango da epaimahaiak herriko balkoi eta atari interesgarriak aztertu eta baloratu ahal izateko. Aurten, berritasun modura, kontuan hartuko da tonu hori eta laranjan apaintzea.

Udaberri osoan zehar beren ataria edo balkoia hobekien zaindu eta goxatu dutenak sarituak izango dira Villabonako jaietan. Sariak, zehazki, hauek izango dira: 1. saria bi lagunentzako bazkari eder bat eta 100 euroko txartela eskualdeko loradenda batean erosi ahal izateko izango da; 2. saria, 100 euroko txartela eskualdeko loradenda batean erosi ahal izateko; eta 3. saria 85 euroko txartela eskualdeko loradenda batean erosi ahal izateko.



Udalak loreak banatu zituen herritarren artean Atari Bizi lehiaketarako. E. EZEIZA

Teatraigo eta Maneras de Sentir taldeak izan dira irabazleak

Aduna » III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketan epaimahaiaren eta entzulegoaren saria jaso dute, hurrenez hurren.

ERREDAKZIOA

Asvinenean antolatu duen III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren irabazleak Teatraigo eta Maneras de Sentir taldeak izan dira. Lehenengoak, *Le Mamelon Fantastic* obrarekin epaimahaiaren saria jaso du, eta bigarrenengoak, *Me cambio, me cambio, me cambio* lanarekin entzulegoarena.

Finalean izan ziren beste bi taldeak *Irube Bat, bi eta hirur!* lanarekin eta *Tres Tristes Tristes Puerta!* lanarekin izan ziren. Aurkezle lanetan Txan magoai izan zen eta Peachy Joke taldea izan zen artista gonbidatua.

Asvineneak lehiaketan parte hartu duten guztiak eskerrak eman dizkie, «bere lana erakutsi eta es-



Teatraigo (goian) eta Maneras de Sentir taldeak, III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketan. HITZA

zenatokiak guztia emateagatik», eta baita lehiaketa egin zedin lagundu duten guztiak.

Kirolari atek zabalduko dizkiote bihar Villabonan

ERREDAKZIOA

Villabonako kirol elkarteak, Oladerra Kiroldegia eta Udaleko Kirol Sailak kirolari atek zabalduko dizkiote eta kirolaren jarduerak bera kaleratuko dute bihar. Eguna Villabonako kirola etabere jarduerak sustatzeko eta bertan dauden instalazioak ezagutzera emateko erabiliko da.

Bihar, beraz, herritar guztiak batu nahi dituen kirol-jolas jardunaldi bat gauzatuko da. Horrela bertan parte hartu ahal izango dute: familiak, pertsona nagusiek, eskola-adineko gazteak... Egunean helburuen artean, kirola herritar guztien eskubidea izan dadin

laguntzeko, kirola gizarteratzeko, hezkuntzarako eta aisia osasuntsu erabiltzeko tresna bihurtzea dira.

Parte-hartzeasustatzeko asmoz zozketa bat egingo da: haurrentzat eta nerabeentzat bat (lagunartean egiteko kirol ekintza bat, piraguis-moa edo antzekoa) eta gazte eta helduentzat beste bat (kirol materiala). Zozketa hurrengo astean egingo da. Ekintza bakoitzaren parte-hartzaileen zerrendan izena eman behar da zenbaki bat lortzeko. Ekitaldiak hainbat lekutan izango dira: Oladerra kiroldegian, Arroa plazan, Berdura plazan, Kale Nagusian eta Erreboteko plazan.

Ertzaintzaren jarrera salatu du AAMk

ERREDAKZIOA

Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak (AAM) salatu duenez, Ertzaintzaren bi patruila eta furgoi bat herri osoan zehar jarrita dauden presoan argazkiek argazki ateratzen aritu ziren herenegu goizean.

Villabonako herria, Ertzaintzak berak Berdura plaza tik kendu on-

doren, euskal presoan argazkiak bete dela dio AAMk eta «berriz ere garbi» esaten du «bat kendu eta haren ordeaz milaka jarriko ditugula, milaka bihotz dagoelako euskal presoekin Villabonan».

Villabonako AAMk gaineratu duenez, «maite ditugulako, bat kentzen duten tokian mila jarriko ditugu».

Adunako ezker abertzalearen «esker beroenak»

ERREDAKZIOA

Adunako ezker abertzaleak «esker beroak eman nahi dizkie herritarrei, igandean Iniziatiba Internazionalista koalizioari horren babes handia emateagatik». Herriko indar bozkatuena izatea «xalotzekoa» izan dela diote eta «horrez gain, duela bost urte baino boto gehiago jaso izana». Adunarrek «argi erakutsi dute nazkatuta daudela gaur egungo egoerarekin, eta aldaketaren beharra eskatzen dutela barru-barrutik», dio ezker abertzaleak. Aspalditik dabilela dio aldaketa horren eske, «horrela soilik lortuko baita puri-purian dagoen gatazka politiko eta soziala gainditzea». Horrela, «herritarrek botatako erroka gustura jaso dugu, eta aurrera begira lanean buru-belarri jarraitzeko indarra eman dugu. Igandean landatutako kimua zuhaitz eder bihurtuko dugu denon artean».

Ezker abertzaleak «herriaren erreferente izaten jarraitzen duela» diote eta «zilegitasun osoa ematen ditugula adunarrek». Zorionak ematen dizkiete emaitza horiek lortzeko «trabaguztien gainetik lanean aritu diren guztiak».

Laburrak

Gurasoentzat bilera, asteartean liburutegian

ADUNA » Herriko gurasoei bilera batera deitu die Aiztondoko dinamizatzaileak. Hilaren 16an, asteartea, izango da, 17:30ean, liburutegian. Bertan 2008-2009 ikasturtean haurrei zuzenduriko ikastaroei buruz hitz egingo da.

Gazteen Eguna izango da gaurkoa herriko festetan

ANOETA » Herriko festetan Gazteen Eguna izango da gaurkoa. Herri lasterketa (11:00), buruhandi eta erraldoiak (12:30), mus txapelketa (15:30), txirrindulari lasterketa (16:30), gazteen kalejira (18:00), sagardo dastaketa (19:00), herri afaria (21:00), gazteen dantza (23:30) eta Kupela taldearekin erromeria izango dira ekitaldiak.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Ezinduentzako garraio baliabideak.** Ezinduentzako scooterra salgai. Urtebeteko garantia. 1.600 euro. Ezinduentzako gurgipildun aukeratuak salgai. 20 kilometrotako autonomia. 2.000 euro. Urtebeteko garantia. 605 77 16 07.

«Herrietan umeen doinua entzuten ez bada, malo»

Berrobi » Iritsi da eguna, hilabeteak dena lotzen eta antolatzen eman eta gero, bihar izango da, azkenean, Eskola Txikien Festa.

REBEKA CALVO

XXII. Gipuzkoako Eskola Txikien Jaialdia izango da bihar Berrobin. Hitzordu garrantzitsua da oso, horrelako herri txiki batentzat, baina azken uneko urduritasun ohikoa besterik ez dute antolatzailerak, izan ere etxeko lanak ongi eginak dituzte; «ez gaude oso urduri, egin beharreko lanak nahiko lotuta ditugu eta festa giroan ondo pasatzeko gogoia dugu».

Hilabeteak eman dituzte dena antolatzen eta kontentu daude atondu duten egitarauarekin, beraz.

Eskola Txikien Festa izanagatik jaiak ez du garrantzia gutxiagorik, herrian eskola izateak berezibiko garrantzia baitu. «Herrian eskola izatea behar beharrezkoa ikusten dugu, eskolak bizia ematen baitio herriari. Eskolarik gabeko herria hilda geratzen da, umeen doinua ez bada entzuten, malo», diote eskolako irakasleek. Agurme Renobales zuzendaria buru dutela.

Datorren urtean Alizon izango da jaia

Aurtengoa 22. edizioa da eta aurreko herriek egindako lana ere baliatu dute Berrobin dena txukun egiteko. Datorren urtean, gainera, Altzoko Eskola Txikiak izango du festa antolatzeko ardura, baina berrobitarrek ez dituzte bakarrik utziko: «Aprobetxa dezatela gure esperientzia guk Zeraingoa aprobetxatu genuen bezala. Gu hasi behar ginenean, Zerainen festa egin berri zuten; eurekin egon ginen, eta beraiek egin zuten guztia jaso genuen, lan asko aurreratuz. Beste gomendioa gogotsu eta pozik egin

dezatela lana, aukera ona baita denak elkarrekin martxan egoteko».

Berrobiko eskola, gainera, berria da, hiru urte besterik ez ditu eta biharko eguna «bertan gaudela» eta «harremanak sendotzeko» ere balio izango duela uste dute irakasle eta zuzendariak. «Urte asko dira festa eginen hasi zela eta

«Festa hau oso baliagarria da bertan harremanak sendotzeko gaudela esateko»

eskola gutxi batzuk gelditzen ginen antolatu gabe. Duela hiru urtez geroztik eskola berria dugu eta aitzakia polita iruditu zitzaigun festa egiteko. Eskola Txikiontzako festa hau garrantzitsua da elkartzeko, hemen gaudela estateko, ondo pasatzeko...», argitu dute.

Festarekin ateratzen duten diruarekin «lehenik eta behin egindako gastuak ordainduko» dituzte eta «zerbaitez gelditzen bada gurasoekin adostuko dugu zertara bideratu».

Ekitaldiak 10:30etik aurrera

Aipatu bezala egitaraua lotuta dute jada; 10:30ean izango da festaren hasiera eta ondoren karaokea, jokoak, puzgarriak, zaldi paseoak, tailerrak... izango dira. Goizeko joko hauek eta karaokea, hala ere, aurretik antolatuta daude eta eskola txikietako haurren artean egingo dituzte. Gainontzeko ekitaldi guztiak irekiak dira.

Lekuko aldaketa 13:30etik 14:00etara izango da eta bazkaria frontoian izango da 14:30ak inguru. Pirritxen eta Porrotxen emandia 16:30etik 18:00etara izango da eta ondoren motozerraz egindako tailla ikusteko aukera ere izango da. Eguna herriko eta inguruko gazteen trikitixa erromeria-ekin amaituko dute.



Berrobiko eskolak Altzori pasako dio bihar jaia antolatzeko lekukoa. HITZA

Irakasleek bihar Berrobira gerturatzeko asmoa dutenei herriguruan ezingo dela aparkatu esan nahi diete. Horretarako bi kilometroetara dagoen aparkalekua presatu dute, Belauntzako industriagunean, errepide ertzean, hain zuzen ere. Bertan autoak lasai utzi ahal izango dira eta autobus zerb-

tzuia izango da egun osoan zehar aparkalekutik herriraino joan-etorrian. Bazkariari dagokionez, pilotalekuan 400 pertsonentzako lekua prestatuko dute, baina eskolako patioan ere jarriko dute karpabata bertan etxetik eramandako edota tabernetan erositako ogitar-tekoak jan ahal izateko.

Ezohiko batzar orokorra egingo dute datorren ostegunean Uzturpen

Ibarra » Bileran, besteren artean, autobus zerbitzuaren tarifaz eta ikastolako kuoten igoeraz hitz egingo dute.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Uzturpe Ikastolako arduradunek azaldutakoaren arabera, ezohiko batzar orokorra egingo dute datorren ostegunean, hilaren 18an. Guraso eta langile guztei egin nahi dio joateko gonbita Ikastolako Errektore Kontseiluak eta batzarreko lehen deialdia 18:00etan izango da eta bigarrena 19:00etan. Bilera Ikastolako Areto Nagusian ospatuko dute.

Lau puntu jorratuko dituzte batzarrean

Ezohiko batzar nagusian jorratuko dituzten gaiak hauek izango dira: Errektore Kontseiluko Lehendakariaren aurkezpena; Akta onartuko duten 2 pertsonen aukeraketa; autobus zerbitzuaren berri eta proposamenak, hau da Ikastolako kuoten igoera eta autobus erabiltzaileen tarifa; eta bukatzeko, beti bezala, galdera-eskeak izango dira.

Etzi izango da 'Berastegi lorez blai' lehiaketan izena emateko azken eguna

ERREDAKZIOA

Berastegiko Kultura Batzordeak *Berastegi lorez blai!* lehiaketa antolatu dute landarez zein lorez apainduriko herriko balkoi, leiho zein lorategi onenen jabeak saritzeke. Parte hartu nahi dutenek astehena baino lehen eman behar dute izena udaletxeko telefonora deituta 943 68 30 00 edota sibas@berastegi.com helbide elektronikora idatzia.

U Urteurrena

XI. urteurrena INA ZEBERIO

(1998ko ekainaren 5ean eraila)

Mugak haustea izan zenuen helburu. Zure bihotz zabalean milaka pertsonak aurkitu dute aterpe.

Etxekoak



LIZARTZAN
2009ko
ekainaren 13an

Bihar, 13:00etan ekitaldia monolito aurrean.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketaren bi final jokatu ziren iragan larunbatean Azpeitian. Eliteen mailakoa Anjel Arrospidek eta Floren Nazabalek jokatu zuten. 19 urte azpikoa Ruben Saralegik eta Ander Erasunek. Leaburuarrak eta leitzarrak garaipea lortzerik izan ez bazuten ere, Txapelketa bikaina burutu dute biek ere.

«Aizkoran inguruko laguntzarik ez baldin badaukazu ez dago deus egiterik»

RUBEN SARALEGI » Aizkolaria

Leitza » Ander Erasunen aurka galdu zuen Saralegik Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketaren finala.

ASIER IMAZ

Osaba eta anaia inguruan dituela entrenamendurako prest dago Ruben Saralegi (Leitza, 1990). Beroketak egin aurretik ordea, Txapelketan egindako lanaren eta zaltetan honen inguruan hitz egin du leitzar gazteak.

Zenbat aizkolari abiatu zineten 19 urte azpikoen mailan?

Txapelketari lauk ekin genion 19 urte azpikoetan. 23koan berriz ha-mailak.

Zuk bietan hartu duzu parte, 19 urte azpikoen finaleraino iritsi zinen gainera. Nola aurkitu zenuen zure burua Azpeitian?

Urduri. Banaka jokatzeko nuen lehen finala zen eta nerbio dezente-rekin. Agian ez nuen nire mailarik onena erakutsi.



A. IMAZ

Erasun ere ondo ibiltzen den aizkolaria da. Arerio zaila beraz.

Erasun oso ongi aritzen da. Aurrekoan, Ataunen aritu ginenean, 32 segundo ateraz zizkidan. Kontrario oso gogorra da, bai.

Maila ez zenuela eman esan duzu. Lehen finalerengatik edo aurkaria ere gogorra zelako?

Guztiagatik. Arerio gogorra da eta atzetik hasitakoan beti zaila izaten

da. Gero lehen finalaren nerbioak ere hor zeuden. Pixka bat denetik. **Urrezko Aizkoran proba desberdinak jokatzeko dituzue.**

Aurreneko proba, kolpeka 45 ontzako enbor bat ebakitzea izaten da, ahal den kolpe gutxienetan. Bigarrena, 45 ontzako enbor bat abiadura azkarrenean ebakitzean datza. Hirugarren proba zutikakoa da, bertikalean jarritako 36 on-

tzako egur bat ebaki behar da. Gero aurrez egin ez genduen proba egin genduen finalean, kanaerdikoa abiadura ebakitzea. Azkeneko proban, etzanda dauden bi kanaerdiko eta bi hirurogei ontzako ebakitzen dira.

Nola joan ziren finaleko probak?

Lehen enborra 30 kolpetan moztu nuen eta Erasuni bi kendu nizkion. Gero abiadurakoan berak irabazi zidan. Zutikakoa nik irabazi nuen eta beste biak berak.

Zutikakoan irabazi egin zenuen beraz?

Bai, 20 segundo kendu nizkion.

Normalean gazteei zaila egiten zaie lan hau.

Bai, baina lehengo urtean hasi ginenez, pixka bat jartzen ari gara. Oraindik besteen mailara iristeko asko falta zaigu. Hala ere, zutikakoan nahiko gustura ibiltzen naiz, konfiantzarekin.

23 urte azpikoetan ere finalerdietara iritsi zinen.

Bai eta Atutxaren kontra galdu nuen. 22 urte dauzka berak eta goi mailako aizkolaria da. Urrezko

Aizkoran binaka handiekin parte hartu du eta baita txapela irabazi ere. Bagenekien lan zaila izango zela, baina hiru proba irabazi genizkion bostetik. Egindako lanarekin gustura gelditu ginen.

Gaur egun gazte bat nola hasten da aizkoran?

Hemen etxean. Baserrian beti hori ikusi izan dugu: osaba gehienak, aita... beti aizkoran eta txiki txikitatik aizkora bat hartu eta etxe inguruko zuhaitz eta egur guztiekin kolpeka ibiltzen ginen.

Entrenamenduan hasi behar duzu orain. Osaba hemen daukazu da, ezta?

Osabek izugarri laguntzen digute. Hemen bakarrik ez dago deus egiterik. Egurrak prestatu, erosi, aizkorak prestatu, gero egurrak bildu... Hemen ez baldin badaukazu laguntzarik ez dago deus egiterik.

Orain enborrak etzanda ebaki behar diren txapelketak datoz.

Bietan hirugarren mailan nago. Euskal Herrikoan aurretik aterako naiz aurreneko aldiz, 18 urte arte ez baitute uzten. Nafarroakoan lehengo urtean ateraz nintzen; finalean sartu nintzen baina ez nintzen igo.

Final bat jokatu, ilusio bereziarekin ekingo al diozu orain?

Bai. Beti izaten da polita horrelako lekuetara iristea, lana ongi egiten ari zarelarikustea.

«Aizkoraren etorkizuna oso polita ikusten dut; horrela segiz gero, laster etorriko dira berriak»

ANJEL ARROSPIDE » Aizkolaria

Leaburu » Nazabalen aurka galdu zuen elite mailako finala Anjel Arrospidek iragan larunbatean Azpeitian.

Lanetik etxera etorri orduko Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketan pentsatzen jarri dugu Anjel Arrospide (Leaburu, 1956). Beti bezala, jatorriasunez erantzun digu leaburuarrak.

Nola joan zen Azpeitiako finala?

Espero bezala. Aurreneko saio horietan nahiko ondo aurkitu nintzen. Nahituena lortu nuen: azkeneko saiora aurretik iristea. Baina alde oso txikia ateratu nuen eta ikusia zegoen ez nuela zeregirik. Minutu bateko alde ateratu izan banio... baina alde txikiarekin ezin nuen ezer egin Nazabalen aurka. Txapeldun bat da eta sasoi bete-betean dago.

Zutikako lanean, parekorik ez duzula erakutsi zenuen berriro ere.

Nire ustez lan honetan Larretxea



M. SOROA

eta Nazabal ditut aurkari gogorrenak eta bieki alde ateratzea lortu nuen. Nahiko ondo moldatzen naiz eta gustura aritzen naiz era horretara.

Donato Larretxea finalerdietan utzi zenuen kanpoan. Horrek Txapelketa bikaina egin duzula erakusten du.

Ez nuen espero horren aurrera jo-

aterik. Larretxea lan horietan oso ondo moldatzen dena da. Bere aurka jokatu nuenean ez dakit zer gertatu zitzaion. Zutikako lanean paliza handia hartu zuen eta gero etzintz bueltarik eman. Ondorioz irabazteko aukera izan nuen.

64 parte-hartzaile irten dira elite mailan. Aizkorak etorkizun oparora duela dirudi.

Etorkizunaren aldetik, pasatakoak ere asko gaude hor. Baina bai, oso polita ikusten dut. Hor dozena-erdi bataizkolaria badaude, hementik 4-5 urtera maila onean egongo direnak, baldin eta horrela segitzen badute. Laster etorriko dira aizkolaririk horiek.

Lehen, inor ez zetorrenean, hori eskatzen zenuen: zuekin hautsi-ko zuten belaunaldi bat.

Horixe falta zen. Hutsune bat egon da hor eta dauzkagun urteekin goran ibiltzea horrexegatik izan da, baina ez da normala. 15 urteko hutsune bat egon da tartean, inor ez dena etorri. Nazabal bera izan da etorri den bakar-bakarrik etorri dena, gainontzean inor ere ez.

Saralegiren finala ikusteko aukera izan zenuen Azpeitian. Nola ikusi zenuen leitzarra?

Saralegik maila ona eman zuen. Nire antzera ibili zen, aurreneko lanetan alde puska bat aterata: zutikakoan mendean eduki zuen aurkaria. Azkeneko lanean ordea oso sasoi, bolada onean, ikusi zuen Erasun. Baina oso txapelketa ona eginda gustura egoteko moduan dela iruditzen zait Saralegi.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



27°
17°

GOIZA EKAITZA
ARRATS. EKAITZA
BEROENA 30°
HOTZENA 15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordeak: Iñigo Terradillos. **Kudeatzaileak:** Maider Garaikoetxea.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldeak: 687 410 032. ibarraldeak@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdeak: 687 410 034. alegialdeak@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Mendia

■ **Tolosa.** Ernioko mendi lasterketa 10:00etan Triangulotik abiatuta (10 km gora eta 10 km behera) eta 1.000 metroko desnibela. Izen-ematea, www.aralarkoadiskideak.org (15 euro).
■ **Bedaio.** Bedaio III. Mendi Martxa oinezkoentzat (neurtua) eta BTT Martxa bihar, 07:30ean frontoitik (txirrindulariak 08:30ean). Izen-ematea, www.bedaio.com edo irteeran (10 euro).

Jaiak

■ **Anoeta.** Jaiak: 11:00etan herri lasterketa; 12:30ean buruhandiak; 15:30ean mus txapelketa; 16:30ean txirrindulari lasterketa; 18:00etan gazteen kalejira; 19:00etan sagardo dastaketa; 21:00etan herri afaria; 22:30ean gazteen dantza eta 23:30ean erromeria Kupelarekin.
■ **Ibarra.** Gazte Festak: 11:30ean ume jolasak plazan; 16:30ean umeentzako ikuskizuna plazan; 17:00etan mus txapelketa Sendi Ekintzan; 18:00etan tortillada eta txokolatada txoznan; 23:00etan Emon taldearen kontzertua plazan eta ondoren Unsain-ekin erromeria.
■ **Tolosa.** San Joan jaiak: 10:00etan hasita goiz eta arratsaldean San Frantziskon kale saskibaloia; 16:00etan graffiti erakusketa Trianguloan; 16:00etan skate Lopez-Mendizabalen; 18:00etan Kultur Etxeko dantza tailerreko ikasleak Leidorren; 19:30ean Bordeline kontzertua.
■ **Ibarra.** Jai egitaraurako azal lehiaketa helduentzat eta haurrentzat. Lanak Benito Izagirre kultur etxean aurkeztu behar dira.

Dantza

■ **Tolosa.** Dantza Astea: Korrontzi musika talde bizkaitarraren kontzertua Olaederra kiroldegian 22:30ean. Oinkari dantza taldeak parte hartuko du gonbidatu berezi bezala.

Zinema

■ **Tolosa.** *Seraphine* filma Leidor aretoan, 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2.943 670128.
■ **Lekunberri.** Noiz, zer, norekin eta guzti hori!

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esaneri eta iritzien erantzukizunik.

Gazteen festak ere hemen dira

Ibarra » Atzo jaurti zuten Gazte Festak iragarri zuten txupinazoa; asteburuari gogotsu helduko diote gazteek.

ERREDAKZIOA

Bero sargoriak eman zien ongietorria Ibarra-ko Gazte Festei. Gaurkoa ere egun beroa izango dela iragarri dute adituek baina ibarrek eguna freskatzeko hamaika aukera eskainiko diete herrira bertarantzera animatzen direnei. Aipatzeak dira, besteak beste, ume jolasak eta gaueko kontzertuak.

Atzo iluntzean eman zioten hasiera festari txupinazoa jaurtitzea-



Gazte Asanbladako kideek eman zieten hasiera aurtengo Gazte Festei. R. CALVO

rekin batera. Ondoren, Mulambok perkusio doinuak zabaldu zituen herrian zehar, sarreratik abiatuta. Gau aldera, indarrak berreskuratzeko norberak etxetik eraman zuen janariarekin barrikotea egin zuten Gaztetxean. Jaien lehen egunari, nola ez, musikarekin eman zioten amaiera, plazan jotzen aritu ziren Des-Kontrol eta Desakato taldeen kontzertuarekin.

Lehen eguna igarota, asteburuari indartsu helduko diote gazteek, udaren etorrerak edozein animatzen du. Ibarra ezin salbuespen izan...

A Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak agurrak agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

» GAZTE FESTAK 09

Hilak 13, gaur

- **11:30.** Ume jokoak plazan.
- **16:30.** Ume-ikuskizuna plazan.
- **17:00.** Mus Txapelketa Sendi Ekintzan.
- **18:00.** Tortillada eta txokolatada txoznan.
- **23:00.** Kontzertua plazan: Emon eta Unsainen erromeria.
- **24:00.** Atarrabiako (Nafarroa) Gas Taldearen ikuskizuna izango da.

Hilak 14, bihar

- **12:00.** Kalejira herriko trikitilarien laguntzarekin.
- **14:30.** Gazte bazkaria Xeplan. Bazkilondoan ere kalejira izango da.
- **18:00.** Kea emanaldia plazan, Gazteek dantzara!
- **19:00.** Loatzo Musika Eskolaren emanaldia plazan.
- **21:00.** Kontzertua Gaztetxean: Ze esatek!

Villabona optika

Sei hilabetetarako lentila eta likidoak

89€

Kale Berria 23A
Villabona
Tel.: 943 11 18 40

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01
(Astagunetan 08:30-20:30 / Lanunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info
eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• NA:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa. Datu Pertsonalak Babesteko, beteri, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren fitxategi automatizatuta batera pasatuko direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezetzatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea. Hala ere, zure datuak ez dira salduzkoak. TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-Arabako etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa. eto harpidedun@hitza.info